



2.6 HARREMANAK

Garrantzitsua da enpresa batek bere bezeroekin nolako harremana edukiko dugun zehaztea. Bezeroak dira enpresen oinarria eta haiek gabe enpresak ez dira ezer, horregatik, importantea da haiekin gertuko harremana eta harreman finko bat edukitzea.

Lehenik, bezero edo kontsumitzaile berriak lortzeko, garrantzitsua izango da hainbat pertsonekin harremanetan jartzea. Euskaltzaindiarekin harremanetan jarriko gara, euskaltzaindiak udaleku batzuk promozionatzen ditu udaleku horrek bezero berriak lortzeko. Gu euskaltzaindiari gure udalekuak aurkeztuko diegu, esango dugu gure udalekuak euskara sustatuko duela eta baserriko hoiturak erakutsiko dizkiegula.

Bestalde, Euskal Herriko hainbat ikastetxeekin harremanetan jarriko gara kontsumitzaile gehiago lortzeko. Gure kontsumitzaileak umeak dira eta orduan, ikastetxeak animatuko ditugu gure udalekuetan parte hartzea.

Gaintzako udalarekin ere kontaktuan jarriko gara, garrantzitsua ikusten dugu udalari proiektua azaltzea eta haiek diru-laguntzak eta beste laguntza mota batzuk ematea. Guk azalduko diegu laguntza hioen truke herriari bixitasuna eta fama gehiago emango diegula.

Baserriak eta landako enpresekin kontaktuan jartzea beharrezkoa ikusten dugu; izan ere, ekintzak antolatzea eta baserriak bixitatzea ekintza baliagarriak izango dira umeentzat eta hau aurrera eramateko pertsona hauekin kontaktuan jarri beharko gara.

Publizitarioko enpresekin harremanetan jarriko gara, garrantzitsua ikusten dugu gure udalekuak publizitate. Proiektua zabaltzeko publizitate kampainak egingo ditugu gure sare sozialetan eta tokiko komunikabideetan, azkenik web orri bat sortuko dugu udalekuko informazio guztiarekin.